

## POESIAREN NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA, BI ERREZITALDI MARTXOAREN 20AN ETA 21EAN

### HEGAN EGIN NAHI DUTEN ARRAINAK GARA

PATXI ZUBIZARRETA, GARAZI HACH EMBAREK, MADDI OIHENART, FELIPE BARANDIARAN, PELLO RAMIREZ, MINTXO CEMILLÁN  
VICTORIA EUGENIA CLUB  
Martxoak 20. 19:30

### PEQUEÑOS INCIDENTES + EL AMOR, ESE VIEJO NEÓN

KARMELO C. IRIBARREN  
ERNEST LLUCH KULTUR ETXEA  
Martxoak 21. 19:30

**Martxoaren 20an *Hegan egin nahi duten arrainak gara*** errezitaldi musikatuaren estreinaldia egingo da Victoria Eugenia Cluben, arratsaldeko 19:30ean. **Patxi Zubizarretak** aukeratutako poeta eta pentsalarien testu zein hizkuntzekin, **Garazi Hach Embarek**, **Maddi Oihenart** eta **Felipe Barandiaranen** ahotsek, **Pello Ramirez**en txeloak eta **Mintxo Cemillán**en margoek burutuko dute ekitaldia. Sarrera libre izango da eta **gonbidapenak** jaso beharko dira Victoria Eugeniako lehiatilan errezitaldiaren egunean arratsaldeko 17:00etatik aurrera.

**Martxoaren 21ean** berriz, **Karmelo C. Iribarren** poeta donostiarrak *Pequeños incidentes* eta *El amor, ese viejo neón* berriki argitaratu dituen antologiaren aurkezpena eta poemak irakurketa egingo du Ernest Llucho Kultur Etxean, arratsaldeko 19:30ean.

**Patxi Zubizarreta** (Ordizia, 1964), idazlea eta itzultzailea. Gaur egun Gasteizen bizi da. Nabarmena da literatura beste diziplina artistikoekin lotzeko eta testuaren irisbideak berritzeko egiten ari den ahalegina, besteak beste Pello Ramirez, Joserra Senperena eta Antton Valverde bezalako musikariek. *Joan* (2010), *Hiru gutun Iruñetik* (2012), *50* (2014), *Laranja bat zaborretan* (2015).

**Garazi Hach Embarek** (Sahara). Gaur egun Ormaiztegin bizi da, *Baina nik poza kantatutzen det* ekitaldian kolaboratzeaz gain, Nomadak Tx taldearekin aritu izan da.

**Maddi Oihenart** (Barkoxe, Zuberua, 1956). Kantaria, Zuberoko kantu edo ipuin tradizionalaren transmititzaile aparta da. Diskografia: *Hari biru* (2007), *Baldi* (2010) eta *Doi* (2015).

**Felipe Barandiaran** (Lazkao, 1945) antzezle eta bikoiztailea. Zineman *Hamaseigarrenean aidanez* edo *Kareletik* bezalako filmetan aktore lanetan jardutearekin batera, beste hainbat proiektutan parte hartu du.

**Mintxo Cemillán** (Madril, 1961). Gaur egun Gasteizen bizi den pintore polifazetiko honek liburu propioak eta besteak ilustratu ditu eta hainbat erakusketetan ere parte hartu du. *Paisaje y vistas de San Sebastián* (1997), *El sueño del dibujante* (2001), *Atravesura* (2009).

**Pello Ramirez** (Ordizia, 1966), txelo eta akordeoi-jotzailea. Sortzailea eta interpretatzailea, disko propioez gain Alos Quartet taldearekin ere ibilia da, edota Benito Lertxundi, Xabier Lete eta Dulce Pontes... bezalako musikariek. Diziplina anitzekin elkar lanean aritzeko irekia, antzerkirako, zinemarako eta dantzarako musika sortu du. *Haize oihalak* (2005), *Eskuz lurrari* (2010), *On* (2012).

**Karmelo C. Iribarren** (Donostia, 1959). Ibilbide luzeko poeta da nahiz eta berandu hasi liburuak argitaratzen. 1967an aita hil zitzaion eta oso gaztetan lanean hasi behar izan zuen. Ez zuen Unibertsitatera joateko aukerarik izan eta poeta autodidakta bat izango da.

Lehenengo liburua 34 urterekin argitaratuko du, *Bares y noches* (1993), jarraian etorriko dira *La condición urbana* (1995), *Serie B* (1998), *Desde el fondo de la barra* (1999), *La ciudad* (2002, 2008), *Seguro que esta historia te suena* (2005), *Ola de frío* (2007, 2009), *Atravesando la noche* (2009), *Versos que el viento arrastra* (2010), *Un leve guiño hacia la sombra* (2011), *Otra ciudad, otra vida* (2011), *Las luces interinas* (2013), *La piel de la vida* (2013), *Diario de K* (2014), *Haciendo planes* (2016), *El tamaño de los sueños* (2016), *Pequeños incidentes* (2017) eta *El amor, ese viejo neón* (2017).

Euskaraz antologia bat argitaratu du *Gainontzekoa, kontuak dira* (2000), eta 2006an gazteei zuzendutako antologia bat egin zuen *El tamaño de los sueños*.